



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko uztialaren 6a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa. Aurkezturiko osoko zuzenketa (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Amma Recursos Asistenciales, S.L. eta Amma Asistencial, S.L. enpresen egungo egoerari eta ematen den zerbitzua ona izan dadin eginen diren jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Elorri ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluak eta zuzendaritzak dimisioa eman izanari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, udal esparruan euskara normalizatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta zenbait toki entitatearen arteko lankidetzaz hitzarmen berri bat egiteari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuak Industria Ministerioarekin bildu ote den FMei buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentzuzko ginekologiako kontsultei buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (11. or.).
- Galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bidez konstituzio kontratatzat deklaratu den soldaten igoeraren ondorioz funtzionarioek jasotako dirua itzuli beharko ez dutela esaten duten txosten juridikoei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspenak eta plangintza oker egin izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, ezgaituen zentroetako prezioei eta erabiltzaileen altak eta bajak baimentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “Esne beltzaren” inportazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako 2007tik 2010era bitarteko estatistika planari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari beste letra bat, b'), gehitzea proposatzen dugu.

Hau da proposatzen den testua:

b') Beste autonomia erkidegoak.

Zioak: Kontuan hartu behar dira autonomia erkidego guztietako organoak, ahalik eta informazio gehiena izateko.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Ordezketak egiteko zuzenketa.

6. artikulua ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planak Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea du helburu, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzuteko. Honako premisa hauek aintzat hartu behar ditu:

- genero ikuspuntua
- ahalik eta gutxien gastatzea
- dauden iturriak ahalbait gehiena aprobetxatzea
- lan bikoizketak saihestea
- herritarrei, enpresei eta erakundeei eragiten zaizkien trabak gutxitzea
- isilpe estatistikoa eta datuen babeserako araudiaren betetzea bermatzea
- informazio estatistikoaren eskuragarritasuna eta lastertasuna bermatzea

Zioak: Hemen ezarritako helburu orokorrak oinarritzko eta funtsezko irizpideak direnez erabakiak hartzerakoan, legearen interpretaziorako irizpide izateaz gain, modu argiago eta sistematikoagoan zerrendatuak izan behar dute. Inolako zalantzarik sortzen ez duen moduan ezarri dugu genero ikuspuntua, eta datuen babeserako araudia aintzat hartu dugu.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Informazio helburuak.

9. artikuluko c) letra aldatzea proposatzen da. Honela geldituko litzateke:

c) Estatistika sozialak, soziolinguistikoak, lurraldeari eta generoari buruzkoak sustatzea, eta

halaber, (...) hobeki ezagutzen laguntzen duten adierazleak.

Zioak: Informazioaren helburuen artean aintzat hartu behar dira Nafarroako gizartearen ezaugarri orokor eta berariazkoek funtsezko dituzten alderdiak, gizarte horren aniztasun sozial, kultural eta lurraldearen arlokoari dagokionez.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Ordezketak egiteko zuzenketa

11. artikuluko c) letraren ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“c) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, alderdi metodologikoetan eta foru erkidegoarentzat interesa duten gaiei aplikatutakoetan, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizartea, ingurumena, lurraldea, hizkuntza-egoera edo sortzen diren informazio-beharrizan berriak hobeki ezagutzen laguntzeko.”

Zioak: Estatistika lanaren eta ikerketaren esparrua ez ixtea, helburu orokorreari buruzko 6. artikuluan erabilitako formularen bitartez irekita utzirik.

5. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Helburu instrumentalak.

11. artikuluko c) letra aldatzea proposatzen da. Honela geldituko litzateke:

c) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, (...) Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizarte, ingurumen, hizkuntza-egoera eta lurraldeari dagokienez, hobeki ezagutzen laguntzeko.

Zioak: Nafarroako egoera soziolinguistikoa eta, zehazkiago, Nafarroako gizartearen baitan euskarak duen jakintza-maila, egoera eta balioespina, intereseko gaia da foru erkidegoarentzat, zalantzarik gabe.

6. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko d) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

Azpimarraturiko testu hau gehitzea proposatzen dugu:

d) Nafarroako estatistika sistemak emandako informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta alderagarritasuna, beste autonomia erkidegoetako, Estatuko eta Europako sistemekiko, sustatzea.

Zioak: Kontuan hartu behar dira autonomia erkidego guztietako organoak, ahalik eta informazio gehien izateko.

7. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko 1. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

15. artikulua. Urteko estatistika programa onestea.

Nafarroako Parlamentuak estatistikarako urtean urteko programa aurkeztu, eztabaidatu eta onetsiko du programaren urtearen aurreko abenduaren 31 baino lehen.

Zioak: Beharrezkoa izan dadila Nafarroako Parlamentuak onestea kasuko urteko programa, horrela bermatu ahal izateko talde guztien parte-hartzea eta ahalik eta informazio gehiena.

8. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

16. artikulua. Jarraipen txostena.

Nafarroako Estatistika Institutuak urtean urteko estatistika programa bakoitzaren jarraipen txostena eginen du Nafarroako Parlamentuak onetsi dezan, bidezko baldin bada.

Zioak: Beharrezkoa izan dadila Nafarroako Parlamentuak onestea urteko estatistika programa

bakoitzaren jarraipen txostena, horrela bermatu ahal izateko talde guztien parte-hartzea.

9. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

16. artikulua. Jarraipen txostena.

Era berean, Nafarroako 2007-2010 Estatistika Planaren ebaluazio proposamena eginen du, hura amaitu ondoren, Nafarroako Parlamentuak onets dezan, oinarri harturik Nafarroako Gobernuako departamentu bakoitzak Nafarroako Estatistika Institutuari igorriko dizkion oroitidazkiak, Nafarroako Estatistikari buruzko 11/1997 Legean ezarritakoaren arabera.

Zioak: Beharrezkoa izan dadila Nafarroako Parlamentuak onestea Nafarroako 2007-2010 Estatistika Planaren ebaluazio proposamena, horrela bermatu ahal izateko talde guztien parte-hartzea.

10. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18 artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Azpimarraturiko testu hau gehitzea proposatzen dugu:

18. artikulua. Nafarroako Estatistika Institutuaren harremanak.

Nafarroako Estatistika Institutuak estatistika lanak egiten dituzten entitate, instituzio edo erakunde mota guztiengana jotzen ahalko du interesgarria deritzon, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planean ezarritako helburuak kudeatzeko soilik.

Zioak: Lankidetzaren esparrua handitzea.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

18. artikuluari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Halaber, lankidetzaren teknikorako akordioak sinatu ahal izateko talde guztien parte-hartzea.”

Zioak: Gure iritziz, lankidetzaren teknikorako akordioak berez dagozkio Nafarroako Estatistika Institutuari, eta berorren harreman-esparruan txertatu beharrekoak dira.

12. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19 artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

19. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenak.

Nafarroako Gobernuak, foru erkidegoan hartutako laginak hobetu ahal izateko, lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izanzen ditu kasuko estatu-erakundeekin eta beste autonomia erkidego batzuekin, horrela haien desagregatuetan ateratzen diren estatistiken adierazgarritasuna hobetu eta Nafarroari buruzko ustiapen osoagoak ahalbidetzeko.

Zioak: Kontuan hartu behar dira autonomia erkidego guztietako organoak, ahalik eta informazio gehien izateko.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 18. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat etorritik.

14. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20 artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

20. artikulua. Lankidetzaren teknikorako hitzarmenak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak lankidetzaren teknikorako hitzarmenak sinatu ahal izanzen ditu 18. artikuluan aipatzen diren entitate, instituzio eta erakundeekin.

Zioak: Lankidetzaren esparrua handitzea.

15. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikulua, zabalkundeari buruzkoa, aldatzeko zuzenketa.

21. idatz-zatiaren aldaketa proposatzen da. Honelaxe geldituko litzateke:

Estatistika planaren helburuak lortzeko, (...) egin beharko da datuen gaurkotasunaren, zabalkundearen lastertasunaren eta edukiaren egiazkotasunaren printzipioak betez eta informazio teknologia berrien erabilera lehenetsiz.

Zioak: Nahiz eta esan daitekeen datu estatistikoaren egiazkotasuna elementu eztabaida ezina dela, kontuan harturik aztertu beharreko gaien aniztasuna, haien garrantzia, haietako batzuei buruz egiten diren irakurketa politikoak eta gizartearen eragin dezaketen oihartzuna, komeni da legeak berariaz aipa dezala datuen zabalkundea egitean haiek erabili behar direla egiazkotasun-betebeharra betez.

16. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Xedapen gehigarria. 2007. urteko Estatistika Programaren onespina.

Nafarroako Parlamentuak, beranduenik, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean onetsiko du 2007. urteko estatistika programa.

Zioak: Beharrezkoa izan dadila Nafarroako Parlamentuak onestea 2007. urteko estatistika programa, Nafarroako herritarren borondatearen adierazpen gorena den aldetik.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzailea kentzeko zuzenketa.

Zioak: 28/2002 Foru Legearen testuan bertan ezarrita dago duen indarraldia.

Foru Lege proiektua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa.

AURKEZTURIKO OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eskatzen du Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Lege proiektua,

Parlamentu honetan eztabaidatu eta onesteko aurkeztua, Nafarroako Gobernuari itzul dakiola.

Zioak: Alde batera utzirik Sonagar enpresarako proposaturiko gastu-gehikuntza justifikatzeko beharrizan objektiboak, aurrekontu-lerro, kontusail eta beharrizan asko daude aurrekontuetatik behar adinako dirurik jasotzen ez dutenak, eta horren ondorioz ezinezkoa gertatzen da osasun, hezkuntza, gizarte ongizate, etxebizitza eta beste alor batzuetako departamentuetako zenbait premia larriri erantzutea. Hala eta guztiz ere, haiek ez dute gobernuaren inolako arretarik lortu, aurrekontuetatik haietarako diru gehiago bideratzeari dago-kionez.

Edonola ere, lege proiektua izapidetzearekin lortuko litzatekeena da xedapen hori onestea 2007ko aurrekontua onetsi eta abiarazteko soilik bi hilabete falta direnean.

Proposamena da kreditu hori "Aurreko ekitaldi- etako superabitaren aplikazioa" izeneko kontusailaren kargura finantzatzea. Ogasun kontseilariaren bitartez jakin denean gobernuak erabaki duela gizarte-beharrizan handiko zenbait kontusailen betetzea izoztea, ezin onartuzko erabakia gertatzen da hau, eta lege proiektua itzultzeko proposamena justifikatzen du.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Amma Recursos Asistenciales, S.L. eta Amma Asistencial, S.L. enpresen egungo egoerari eta ematen den zerbitzua ona izan dadin eginen diren jarduketei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak Amma Recursos Asistenciales, S.L. eta Amma Asistencial, S.L. enpresen egungo egoerari eta ematen den zerbitzua ona izan dadin eginen diren jarduketei buruz egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari, eta tramitzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Hasiera batean "AMMA Recursos Asistenciales, S.L." enpresak eta geroztik "AMMA Asistencial, S.L." enpresak –biak ere Nafarroako Kutzak sortuak eta horren partaidetzakoak– kudeatutako Iruñeko etxez etxeko laguntzarako zerbitzuetan ustez izandako irregulartasunen larritasunagatik, eta Miguel Sanz Sesma Nafarroako Kutzako Administrazio Kontseiluko lehendakaria dela kontuan izanik, honako galdera aurkeztu diogu.

Aipatu bi enpresen egoerari eta ematen den zerbitzua –zerbitzu horien menpe dauden nafarregan eragin larria izan dezakeela kontuan izanik– ona izan dadin eginen diren jarduketei buruzko galdera.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot galdera hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko uztailaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Elorri ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluak eta zuzendaritzak dimisioa eman izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Elorri ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluak eta zuzendaritzak dimisioa eman izanari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du Hezkuntza kontseilariak Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean ahoz erantzun diezaion:

Hezkuntza Departamentuak, ikasturte honetarako, Elorri ikastetxe publikoan ikasgela bat gutxia-

go eskaini du, nahiz eta eskaera 25 eskola-postu horiek baino handiagoa izan –hasieran 5 gehiago eta gero 7 gehiago–. Departamentuak sortutako arazo hori dela-eta, Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluak eta zuzendaritzak, azkeneko bileran, dimisioa aurkeztu zuten Hezkuntza Departamentuak horrelako kasuetan ezarritako prozedurarekin (baremoan puntu kopuru bera duten eskola-posturik gabeko umeen arteko zozketa) moralki ados ez daudelako. Horretaz gain, Mendillorriko beheko aldeko urbanizazio berrira bizitzera jende ugari joan denez matrikula igoko dela aurreikusten da; halaber, ikastetxean bi lerro jartzeko nahikoa langile eta baliabide badira.

Galdera

Berri ona al da, kontseilariaren ustez, Elorri ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluak eta zuzendaritzak dimisioa aurkezteko hartu duten erabakia? Neurriren bat hartuko al du kontseilariak erabaki hori behin betikoa izan ez dadin?

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, udal esparruan euskara normalizatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta zenbait toki entitateren arteko lankidetzaren hitzarmen berri bat egiteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, udal esparruan euskara normalizatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta zenbait toki entitateren arteko

lankidetzaren hitzarmen berri bat egiteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ba al du kontseilari jaunak udal esparruan eus-kara normalizatze aldera Nafarroako Gobernuaren

eta zenbait toki entitateren arteko lankidetzak hitzarmen berri bat egiteko asmoa?

Hala bada, zein dira hori egiteko arrazoiak? Zein helburu berrirekin? Zein da kontseilariaren balorazioa gaur egungo hitzarmenaren garapenari buruz?

Iruñean, 2006ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua Espainiako Gobernuko Industria Ministerioarekin bildu ote den FMei buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua Espainiako Gobernuko Industria Ministerioarekin bildu ote den FMei buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Industria ministro José Montilla jaunak atzo Senatuan iragarri zuenez, FMei buruzko plan tekniko nazional berriak, Espainia osoan, 870 irrati frekuentzia berri inguru sortuko ditu. Dirudenez, prozesua aurreratuta dago, eta ministroak, dagoneko, zenbait autonomia erkidegotako ordezkari-ekin bildu da.

Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Bildu al da Nafarroako Gobernua Industria Ministerioarekin?

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Nafarroarako lizentziarik badagoen?

3.- Hala bada, nola egingen da lizentziak esleitzeko prozesua?

Iruñean, 2006ko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroko ginekologia-ko kontsultei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroko ginekologiako kontsultei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descargak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera

hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Etxarri-Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan, 2006ko uztailerako, zer plangintza aurreikusi da ginekologi kontsultei dagokienez?

2.- Aipatu zentroan, zenbat jende dago itxaron-zerrendan (azterketak eta patologiak) 2006ko uztailaren 1ean?

3.- Zenbat haurdunaldiren jarraipena egin da zentroan 2005ean? Zenbat 2006ko urtarrilaren 1etik uztailaren 1era bitartean?

4.- Etxarri-Aranazko emakumeari laguntzeko zentroaren inguruko ikastetxeetan, 2005-2006 ikasturtean, sexu heziketari buruzko zenbat ikastaro egin dira euskaraz? Ikastaroak zehaztu.

Iruñean, 2006ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bidez konstituziokontra kotzat deklaratu den soldaten igoeraren ondorioz funtzionarioek jasotako dirua itzuli beharko ez dutela esaten duten txosten juridikoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bidez konstituziokontra kotzat deklaratu den soldaten igoeraren ondorioz funtzionarioek jasotako dirua itzuli beharko ez dutela esaten duten txosten juridikoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Konstituzio Auzitegiaren epai baten bidez Nafarroako 1997ko Aurrekontu orokorreari buruzko Legearen lehen xedapen gehigarria –funtzionarioen lansarien igoerari buruzkoa– konstituzio kontra kotzat jo eta deuseztatu egin da; hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Sanz lehendakariak, igoera hori dela-eta, funtzionarioek jasotako dirua ez dutela itzuli beharko esan du; zer txosten juridiko ditu eskura Nafarroako Gobernuak, lehendakariak hori adierazi ahal izateko?

Aipatu txostenak bidaltzea nahi dugu.

Iruñean, 2006ko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren 2005eko "Laneko arriskuei eta prebentzio neurriei buruzko informazio plana" izeneko aurrekontuko lerroa lotuta dago Lan Osasunaren Institutuak urtero garatzen dituen laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazio-, hedapen- eta sentsibilizazio-egintzekin

2005ean, arlo horretan lanean jarraitu da eta ohiko jarduerak egin dira.

Aurrekontuan agertzen den kopuru guztia ez zen bete dibulgaziorako erabilitako materialaren zati handi bat ez zelako berrargitaratu behar izan; izan ere, aurreko urteetako argitalpenen izakinak bagenituen.

Paperean materialak argitaratzeko beharra gutxiagotzeko beste arrazoietako bat izan da institutuaren web orriaren (www.sfnavarra/insl.es) erabilerak izandako harrera ona; izan ere, web orriak 2004an milioi bat eta berrogei mila bisita izan zituen, eta 2005ean, aldiz, bi milioi eta erdi baino gehiago.

Aipatu web orrian, Institutuak urtero egiten dituen material, monografia eta argitalpen guztiak erabiltzaileen esku doan jartzen dira eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren argitalpen guztiak ezer ordaindu gabe jaisten ahal dira.

Hori dela eta, urtero erabiltzen den eta beharrezkoa den materialaren zati bat ez da inprimategira eraman behar izan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murriztu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren Nafarroako lan osasunari buruzko plana izeneko kontusaila murrizteko dauden arra-

zoiei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2005ean, Nafarroako I. lan osasunaren planaren aurreikuspena eta ebaluazioa egin zen, eta ondoren, egoeraren diagnostikoa egin zen Nafarroako II. lan osasunaren plana egiteko, aurtengo ekitaldian aterako dena.

Bestalde, Nafarroako lan baldintzei buruzko inkesta egin zen eta Nafarroako lan osasunaren behatokiaren sorrera zehaztu zen; bi horiek izaten ari dira, eta izanen dira, Nafarroako II. lan osasunaren plana diseinatzeko, betetzeko eta jarraitzeko oinarriak. Plana datozen lau urteetarako izanen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspenak eta plangintza oker egin izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspenak eta plangintza oker egin izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan aurreikuspe-

nak eta plangintza oker egin izanari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Botikak erostera zuzendutako kontusailen hasierako aurrekontua 15.400.699 eurotan handitu zen aurreikusitako gastuak ere handitzearen ondorioz; hona arrazoirik nabarmenenak:

– Adimen osasunean, gehien kontsumitzen den botika mota (neuroleptikoak) emateko moduan aldaketa garrantzitsua izan da; izan ere, adimeneko nahaste larria tratatzeko botika orain piluletan banatzen da eraginak gehiago iraun dezan, eta, horrek eri bakoitzeko kostua nabarmen handitzea (% 175) ekarri zuen.

– Nafarroako Ospitalean, bai gaixoen kopurua (% 13) bai kasuen kopurua (% 14) igo egin dira. Igoerarik aipagarriena onkologia-hematologia arloan eman da; arlo horretan gaixoen kopurua % 15,7 igo da, kasuen kopurua % 21 eta zikloak % 33 igo

dira; hori dela eta, gaixo bakoitzeko gastua aurreko ekitaldian baino % 14,6 handiagoa izan da. Halaber, hasiera batean aurreikusita ez zeuden patologia berriak agertu dira; besteak beste, Fabriren gaitotasuna, glioblastoma, koagulazioaren aurkako tratamendua duen garezurreko barneko odoljarria, mesotelioma eta endekapen makularra.

– Bideko Ama Birjina Ospitalean likidatutako gastua asko igo da VIII. faktorearen kontsumoan (% 32,6), eritropoietina eta dialisirako likidoetan (% 20,8), eta esklerosi anizkoitzaren tratamenduan (% 35,9).

– Ubarmin Klinikian ere aurrekontuan jasota zegoen gastua igo da tratamendu ambulatorioan bai gaixoen kopurua (139) bai emandako unitateak (% 77,9) ugaritu direlako.

– Tuterako Reina Sofia Ospitalean gastua igo da hala gaixoen kopurua nola gaixo bakoitzeko kostua igo direlako; ondoko arloetan eman da igoerarik nabarmenena: onkologian (% 7,1), erreumatologian (% 30) eta eritropoietina (% 4).

– Bukatzeko, Lizarrako Garcia Orcoyen Ospitalean igoerarik garrantzitsuena gaixo ambulatorioek sortutako gastua da, batez ere urologian (% 94) eta artritis erreumatoidean (% 129)

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak galdera egin du Osasun Departamentuaren 2005eko aurrekontuan egin diren aldaketen arazoiei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2005eko ekitaldiko II. kapituluari –Ondasunen eta zerbitzuen erosketak– dagokion aurrekontua 16.941.613 euro igo da.

Igoerarik garrantzitsuenak “Botikak” (15.400.699 euro) eta “Gai kimikoak eta laborategikoak” (610.152 euro) izeneko kontusailetan gertatu dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, ezgaituen zentroetako prezioei eta erabiltzaileen altak eta bajak baimentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak ezgaituen zentroetako prezioei eta erabiltzaileen altak eta bajak baimentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 3ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du ezgaituentzako zentroetako itunei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein arrazoi daude itunetako prezioetan alde hain handiak justifikatzeko? Zergatik dira Carmen Aldave egoitzako postu itunduak hain garestiak, beste zentro batzuetako postuekin alderatuta?

Ezgaitasuna duten pertsonei laguntzeko itunetako prezioetan dauden aldeak justifikatzeko arrazoi nagusia da erabiltzaileek dituzten beharrak desberdinak direla. Ezin da saiatu oso behar desberdinak laguntzeko prezioak batzen. Adibide gisa, hona hemen Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren aginte koadroan aurreikusitako ezgaitasun moten zerrenda:

- Garuneko kaltea.
- Gorputz- eta mugimen-urritua.
- Portaera-nahasmena duen gorputz-urritua.
- Adimen-gaixotasuna duen adimen-urritua.
- Adimen-atzerapena duen adimen-urritua.
- Adimen-gaixotasuna eta adimen-atzerapena dituen urritua.
- Adimen-atzerapena eta portaera-nahasmena dituen urritua.

Hori aipatuta, alde ekonomikoak ez dira galderan esaten den bezain handiak Baieztapen hori argitzeko hona adibide bat:

Carmen Aldave egoitza, negoziaturiko prozeduraren bidez, garun-perlesia eta antzeko eritasu-

nak dituztenei laguntzeko, 2004ko irailean itundu zen. 2006an, erabiltzaile eta urte bakoitzeko modulua 46.163,79 eurokoa da. Prezio horren barruan dago Iruñeko Eneko Aritza kaleko eraikinaren erabilera, hortik diruz lagunduta dagoen zatia kenduta. Beste zentro batzuekin alderatuta, horren garestia al da?.

Galdera horri erantzuna emateko prezio hori Infanta Elena zentroko moduluarekin alderatuko dugu. Jakina den bezala, gorputz- eta mugimen-urritasuna dituztenei laguntzeko den zentro hori Nafarroako Gobernuarena da, eta zentroaren kudeaketa lehiaketa publiko irekiaren bidez eman da. Kasu honetan, 2006ko egoitza-modulua 43.837,55 eurokoa da. Kasu honetan, berriro diot, Nafarroako Gobernuak instalazio eta ekipamendu guztiak jarri ditu. Carmen Aldave zentroko erabiltzaile baten eta Infanta Elena zentroko erabiltzaile baten arteko alde ekonomikoa (aipatu ezaugarriak kontuan izanik) % 5,3 da.

Hona beste adibide bat errealitate hori hobeki ulertzeko: San José zentroa Nafarroako Gobernuarena da eta gobernuak berak, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren bidez, kudeatzen du; zentro horretan adimen-gaitasuna duten 80 adimen-urritu daude. Zenbat kostatzen zaio Nafarroako Gobernuari erabiltzaile baten laguntza San José zentroan? Hauexek dira 2005eko datuak:

Kontzeptua	Zenbatekoa, guztira	Erabiltzaile bakoitzeko zenbatekoa
I. kapitulua - Langile gastuak	4.030.142,72	50.376,78
II. kapitulua - Gastu arrunta	412.954,36	5.161,93
VI. kapitulua - Inbertsioak	19.793,68	247,42
Urteko kostua	4.462.890,76	55.786,13

Kasu honetan, higiezinaren eta ekipamenduen balioa ez dago kostuan sarturik. Agerian dagoenez, San José zentroko erabiltzaile bakoitzeko kostua Carmen Aldave egoitzakoa baino % 20,84 handiagoa da.

2.- Nori dagokio ezgaituentzako zentro itundu-ko erabiltzaile izaera aitortzea? Eta zentro horietako bajak eta altak ematea?

Itundutako zentroetan ematen diren sartzeak, aldaketak, altak eta bajak, Nafarroako Gizarte

Ongizate Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emandako ebazpenaren bidez egiten dira; betiere, aipatu erakunde autonomo horren Laguntza Soziosanitarioaren Atalak proposatuta.

3.- Zein arrazoi, irizpide eta helburu direla-eta justifikatu da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak baimena ematea Ramón y Cajal egoitzako 33 erabiltzaileri baja emateko?

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren edozein zentrotan edo zentro itunduetan sartzeko eskaera erabiltzaileak berak –gai denean– edo bere ordezkari legalek –epaile batek ezgai dela erabaki duenean– egin behar dute.

4.- Zein arrazoi, irizpide eta helburu direla-eta justifikatu da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak baimena ematea Ramón y Cajal egoitzan baja eman zuten 26 erabiltzaileri Carmen Aldave egoitzan sartu ahal izateko?

Arestian aipatu dugun bezala, zentroetako bajak eman daitezke erabiltzaileak eskatu duelako, hil delako edo beste zentro batera joan delako; betiere, interesdunaren nahia kontuan izanik.

Galderak aipatzen dituen 33 erabiltzaile horietatik:

– 16 pertsona Ramón y Cajal egoitzatik datoz; horietatik:

- 7 pertsona egoitza ez-iraunkorrean zeuden eta egoitza iraunkorrean tokia lortzeko zain; horiek Carmen Aldave egoitzarako zerrendan sartu genituen.
- 4 pertsonak Carmen Aldavera sartzeko espresuki eskatu dute.
- 5 pertsonak Carmen Aldavera sartzeko ez dute espresuki eskatu.

– 17 pertsona Ramón y Cajal eguneko zentrotatik datoz. Guztiek Carmen Aldavera sartzeko espresuki eskatu dute; eskaera batzuk aurreko urteetan egin ziren eta beste batzuk Carmen Aldave ireki behar zen egunetan.

– Beste egoitzetatik etorri ez diren edo etxetik etorri diren 7 pertsonak Carmen Aldavera sartzeko espresuki eskatu dute.

5.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Ramón y Cajal eta Carmen Aldave zentron artean sinaturiko itunen baldintza administrati- boen orrian ageri denez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bete gabe dagoen postu huts bakoitzeko ordaintzen du. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut: Aldi berean ordaindu al dira baimendutako bajengatik Ramón y Cajalen hutsik geratutako 26 plazak, eta pertsona horiexen Car-

men Aldave egoitzako 26 altak? Zenbateko kostua izan dute Ramón y Cajal egoitzako bajek eta Carmen Aldave egoitzako sarrerek 2004an eta 2005ean? 2004ko eta 2005eko urteei buruzko informazio berezia nahi dugu bajengatik hutsik geraturiko postuei buruz eta Carmen Aldave egoitzako sarrerei buruz.

Ondoko tauletan Ramón y Cajal zentroan hutsik geratutako plazen hilabeteko kostua zehazten da, eguneko zentroa, egoitza iraunkorra eta egoitza ez-iraunkorra bereiziz.

EGUNEKO ZENTROA

2004. urtean	Okupazioa	Erreserba	Erreserbaren kostua
Uztailan	100	0	0,00
Abuztuan	100	0	0,00
Irailean	100	0	0,00
Urrian	78	22	28.082,91
Azaroan	76	24	29.647,64
Abenduan	76	24	30.635,90
2004koa, guztira	530	70	88.366,45

2005. urtean	Okupazioa	Erreserba	Erreserbaren kostua
Urtarrilean	77	23	30.411,35
Otsailean	76	24	28.662,59
Martxoan	77	23	30.411,35
Apirilean	78	22	28.150,76
Maiatzean	79	21	27.766,89
Ekainean	80	20	25.591,60
Uztailan	80	20	25.591,60
Abuztuan	81	19	24.312,02
Irailean	81	19	24.312,02
Urrian	81	19	24.312,02
Azaroan	83	17	21.752,86
Abenduan	86	14	17.914,12
2005ekoa, guztira	959	241	309.189,21
Guztira			397.555,66

EGOITZA IRAUNKORRA

2004. urtean	Okupazioa	Erreserba	Erreserbaren kostua
Uztailan	18	0	0,00
Abuztuan	18	0	0,00
Irailean	18	0	0,00
Urrian	13	5	8.046,95
Azaroan	17	1	1.557,47
Abenduan	18	0	0,00
2004koa, guztira	102	6	9.604,43

2005. urtean	Okupazioa	Erreserba	Erreserbaren kostua
Urtarrilean	18	0	0,00
Otsailean	18	0	0,00
Martxoan	17	1	1.667,05
Apirilean	18	0	0,00
Maiatzean	18	0	0,00
Ekainean	18	0	0,00
Uztailan	17	1	1.613,28
Abuztuan	16	2	3.226,56
Irailean	16	2	3.226,56
Urrian	16	2	3.226,56
Azaroan	16	2	3.226,56
Abenduan	16	2	3.226,56
2005ekoa, guztira	204	12	19.413,12
Guztira			29.017,55

EGOITZA EZ-IRAUNKORRA

2004. urtean	Okupazioa	Erreserba	Erreserbaren kostua
Uztailan	16	0	0,00
Abuztuan	16	0	0,00
Irailean	16	0	0,00
Urrian	8	8	8.455,20
Azaroan	7	9	9.205,26
Abenduan	5	11	11.625,90
2004koa, guztira	68	28	29.286,36

2005. urtean	Okupazioa	Erreserba	Erreserbaren kostua
Urtarrilean	5	11	12.042,46
Otsailean	6	10	9.888,24
Martxoan	6	10	10.947,69
Apirilean	9	7	7.416,18
Maiatzean	10	6	6.568,61
Ekainean	11	5	5.297,27
Uztailan	10	6	6.356,72

Abuztuan	10	6	6.356,72
Irailean	10	6	6.356,72
Urrian	11	5	5.297,27
Azaroan	13	3	3.178,36
Abenduan	14	2	2.118,91
2005ekoa, guztira	115	77	81.825,16
Guztira			111.111,52

Bestalde, 2004ko irailaren 15ean ituna sinatu zenetik, hauexek dira Carmen Aldave egoitzari egindako ordainketak:

2004. urtean	Ebazpena	Zenbatekoa
5. bihilekoan	4997/2004, azaroaren 23koa	203.520,86
6. bihilekoan	Aurreko bera	239.491,05
2004ko ordainketak, guztira		443.011,91

2005. urtean	Ebazpena	Zenbatekoa
1. bihilekoan	812/2005, martxoaren 4koa	280.701,22
2. bihilekoan	1151/2005, martxoaren 22koa	270.169,23
3. bihilekoan	1963/2005, maiatzaren 11koa	270.169,23
4. bihilekoan	3049/2005, uztailaren 13koa	273.050,37
5. bihilekoan	4035/2005, irailaren 27koa	258.941,69
6. bihilekoan	5268/2005, abenduaren 12koa	268.171,83
Guztira		1.621.203,57

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, “Esne beltzaren” inportazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak “Esne beltzaren” inportazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du “esne beltza” deitutakoaren inportazioari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

1.- Ba al du departamentuak informaziorik Europar Batasuneko herrialdeetan sobran den esnea Nafarroan sartu izanari buruz 2005ean eta 2006an? Zenbat esne sartu da?

– Merkatu libreari buruzko legeen arabera, Europar Batasuneko herrialde batetik bestera esnea eramateko murrizketarik ez dago. Europar Batasuneko herrialde batetik bestera bidaltzen den esnearekin batera bere jatorria egiaztatzen duen dokumentazioa izan behar da. Estatu kide bakoitzak, esnearen merkatuaren antolamendu komunaren araudia errespetatzeko, kontrolak egin behar ditu (esne-tasa, kalitatea, etab.).

2.- Egia al da UAGNk eginiko salaketa, alegia, esne-industria batzuek inportatutako esnea banatzen ari direla beste lantegi batzuetan?

– Departamentuak ez du UAGNk gai horri buruz egindako inolako salaketaren berri.

3.- Nolako kontrola egiten du departamentuak Nafarroan gai honetan lan egiten duten enpresa eta zentralen gainean? Zenbat zehapen espediente zabaldu dira gai hauek direla-eta 2005ean eta 2006an?

– Esne-tasa kontrolatzeko plan bat zehazturik dago; plan horren arabera, lehenbiziko erosleen, ekoizleen eta nazioko garraioaren gaineko kontrolak egingen dira. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, Nekazaritzako Bermearen Estatuko Fondoak agintzen dizkion kontrolak egiten ditu.


– Bai.

– Zehapen-espedienteak Nekazaritzako Bermearen Estatuko Fondoaren eskumenekoak dira eta ez dugu inolako zehapenen berri.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	43,95 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,15 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,30 »